

BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan, gure produktuaren ezaugarri eta berezitasunak aipatuko ditugu, honen onurak sakonki azalduz.

Azken bi urte hauetan, marrazketa teknikoaren ikasgaiaren konpasa askotan erabiltzen dela nabaritu dugu, eta aldi berean, honek dakartzen hainbat arazo sumatu ditugu. Egia da tresna oso erabilgarria dela, baina batzuetan erabiltzea zaila izateak emaitza eragin handia du, eta beraz, sistema automatiko bat ezarri nahi dugu. Esate baterako, zirkunferentzia txiki bat egiteko, nekez lortzen da konpasa behar den neurriera moldatzea. Beste alde batetik, sistema elektronikoen, hala nola ordenagailuek, ordezkatu dute dagoeneko honen erabilera, baina hezkuntzan oraindik erabiltzea ezinbestekoa da, lanak eskuz entregatzen baitira. Beraz, produktu honi esker, zehaztasun handia izango dugu eta lanak txukunagoak izango dira; orain arte sortu ez den produktu berri honek, onura handiak ekarriko ditu. Gainera, eskaintza sinplea dirudien arren, oso efizientea da, eta ez du akatsik egiten.



Proiektu hau aurrera eramateko, gure konpasa diseinatu dugu, erabiltzailearentzat ahal den erosoena eta erabiltzeko ahalik eta errazena izan dadin.



Kompasa piztu dadin, minaren hanka berdinean dagoen botoi bat sakatu behar da soilik. Irudian ikus daitekeen bezala, konpasa honek plaka txiki bat du goiko aldean, non bi botoien bidez desiratutako neurria ezartzeko aukera egongo den (neurri hauek milimetrotan jarri beharko dira). Ondoren, konpasean mina dagoen hanka neurri horretara moldatuko da, eta guk goialdean kokatuta dagoen botoi gorria sakatu besterik ez dugu egingo konpasa biraka hasi dadin; botoia sakatzen den bakoitzeko, bira bakarra emango du.



Gure konpasaren gorputza metalezkoa izango da, eta beheko torloju eta goiko zatia (neurrien pantaila dagoen zatia) kolore desberdina edukiko dute. Guk eskainiko ditugun koloreak, irudian agertzen den beltza, berde iluna, granatea eta morea izango dira. Beraz, gure produktua ezingo da pertsonalizatu, aipatutako modeloa eta koloreak egongo dira, soilik.

Produktuaren dimentsioari dagokienez, bere neurriak konpas normal batenak izango dira, hau da, bere luzerak 15cm edukiko ditu eta zabalera 2,5cmkoa izango da. Bestalde, puntan edukiko duen pantailak 20 mm-ko luzera eta 10mm-ko zabalera izango duen laukizuzen bat izango da. Azkenik, berekin batera emango dugun kaxaren luzera, hau da, irudian agertzen den konpasa gordetzeko kaxarena , 18cmkoa izango da .



Gure produktuaren prezioa, beste edozein konpas mekanikoren antzekoa izango da, hau da, automatizazioak ez du prezioaren igoera suposatuko, beraz, gazteek eskuratzeko erraztasuna edukiko dute. Bestalde, konpasarekin batera, minak, zorrozkailla, borragoma, konpasa erabiltzerako orduan boligrafo bat jartzeko aukera ematen duen pieza, portamina bat eta mina gehigarriak oparituko ditugu.

